

## Eraberritzea abian

**E**usko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak oinarritzko irizpideak aurkeztu ditu EAEn azken hogeita bost urteetan indarrean egon den ele biko ikas ereduari buruzko proposamena gainditzeko. Irizpide horien artean, ikastetxeei helburuak lortzeko xedez esku hartze are zabalagoa ahalbidetzea, derrigorrezko eskolaldirako hizkuntza helburuak finkatzea, euskara ikas/irakaskuntzaren hizkuntza nagusia bilakatzea, atzerriko hizkuntzen eskuratzea bultzatzea, curriculumari buruzko berrikuntzak sustatzea, tarteko zein azken helburuak lortzen direnents jarraipena egiteko kanpoko ebaluazio sistema bat eratzea, eta abar dira mahai gainean jarritakoaren ardatz nagusiak.

Aurkeztutakoak laurogeita hamarreko hamarkadatik hona gure arteko zenbait hezkuntza erkidegotan, ikastoletan bereziki, burututako ibilbidetik edan eta sistema osora hedatzeko modua egiten du, European arrakastatsua goak diren hezkuntza moldeetara hurreratzeko bidea zedarrituz, bidenabar. Horiek horrela, A, B edota D ereduari buruzko eztabaida nominalista bezain sinpleetara ohituta daudenei proposatutakoaren muina harrapatzea kostatu egin zaie. Izan ere, lortu beharreko helburuetan jarri da, oraingoan, atentzioa, helburu horiek erdiesteko bideratu beharreko bitartekoen gaia gerorako utziz.

Hasiera batean, eztabaida helburuetan kokatze horrek oso-oso agerian utzi ditu euskararekiko erdi ezkutuan zeuden zenbait jarrera, besteak beste, orain arte euskararekiko atxikimendu eta konpromiso eskasa erakutsi duten sindikatu eta hedabide batzuen, euskararekiko maila gehiegizkoa ez ezik euskara ikas/irakaskuntzaren hizkuntza nagusia bihurtzeak gaztelania bazterrean uzten duela nabarmendutenean. Ez dituzte, ostera, gaztelaniarekiko ez eta ingelesarekiko xedeak auzitan jarri.

Aipatutakoaz landa, ezarritako mailara iristen ez diren gazteekin zer gertatuko den, hots, titulurik eskuratuko ote duten edota hasierako urteetan umea ama-hizkuntzan hezi beharra ere aipatu



INIGO AZKONA

dira. Lehenbizikoari dagokionez, ikastetxeak dira gazte batek derrigorrezko eskolaldia amaitu eta dagokion titulua jaso dezakeela egiaztatzen dutenak, beraz, ikastetxeentzat da presioa, haiena, hein handi batean, erantzukizuna. Ikastetxeei aitortzen zaien autonomia xedeak lortzeko baliatu behar dute, ez beste zernahirako.

Ama-hizkuntzaren gaia ere ez da berria gure artean. Egun, eskolatutako ume ia guztiak gaztelaniaz ondo moldatzen direlarik, askok euskaraz moldatzeko zailtasunak dituztelarik, euskaraz ahalik lasterren hastea eta ikas/irakaskuntzaren ardatz bilakatzea erabaki-

garria da, proposatzen diren helburuak ez dira lortuko, bestela. Alabaina, gaztelania buruan, argudio horretaz baliatzen direnei galdetu beharko litzaieke gaztelaniarik ezagutzen ez duten etorkinak hasierako urteetan haien ama-hizkuntzan hezi nahi dituzten. Ea erantzuna parekoa ote den, indar bera ote duen.

Mozorroak ken ditzagun, arren. Baietzapen horien atzealdean, funtsean, euskarak bigarren mailako hizkuntza izaten segi dezan sektore batzuek egiten duten ahalegina dago. Ikuspegi hori dago, besteak beste, A ereduko hainbat ikastetxetan, euskara

bazterrean utziz, atzerriko hizkuntzak eskuratzeko egin dituzten berebiziko ahaleginen atzealdean. Eztabaida ez da, beraz, hezkuntzara mugatzen, atzealde politiko garbia du, tamalez.

Baina, xedeekin batera, bitartekoen auzia ere erabakigarria suertatuko da. Euskararen indarberritzearen alde azaltzen diren

askok, abertzaleen esku dagoen hezkuntza administrazioak, ahuleziarik erakutsi gabe, egin beharrekoetan sendo, behar diren lanabesak ezarriko ote dituen, zango-trabaz joria izango den prozesuaren aitzindarritza eramateko gauza izango ote den zalantza handiak dituzte. Datozen hiletan panorama politikoak lurrikara bat baino gehiago jasan beharko dituela, areago. ■

Ikastetxeak dira gazte batek  
derrigorrezko eskolaldia amaitu eta  
dagokion titulua jaso dezakeela  
egiaztatzen dutenak, beraz,  
ikastetxeentzat da presioa, haiena,  
hein handi batean, erantzukizuna

